

Irri Par Txu

Baietz negarrez lehertu!

SINOPSIA:

2 lagun eskenatoki gainean. Baina lagun "pertsona" edo "tipo" adierarekin. Ezin dira adiskideak izan, ez baitute elkar ezagutzen.

Eta zer gerta daiteke biak lan bera egiteko kontratatu dituztela konturatzen direnean? Ba sesiotan amaitu dezaketela, baina "sesio" ez "emanaldi" sentzuan baizik eta "haserre" esanhiarekin...

Horrela bada, haiek ez dira irripartsu egongo. Ikuslegoaren kasuan, ordea, desberdina izango da; seguro parrez (edo negarrez) lehertuko dela IRRI-PAR- TXOU pareagabe honekin.

"Pare gabe" sentzu literalean, "par" edo "bikote" formatuan hasi denak bakarrizketara joko baitu.

Ez dute gai bat jorratu gabe utziko, norberak bere estiloan, baina biak hala biak umorea lagun (adiskide) dutelarik: Ikastoletako garaiak eta gertakizunak, txikitatik nerabetasunera gertatutakoak, unibertsitate garaiak, maitasuna eta sexua, familia, euskaldunon izaera eta ohiturak, musika, hitz jokoak ...

FITXA ARTISTIKOA

Aktoreak: Ion Martinez Esnaola eta Jose Cruz Gurrutxaga

Gidoia: Ion Martinez Esnaola eta Jose Cruz Gurrutxaga

Ekoizpena, diseinu grafikoa, banaketa: Ttipia Sustapenak

FITXA TEKNIKOA

Generoa: Bakarrizketa, umorea.

Espazioak: Barrukalde (aretoak, kafe teatro formatoa)

Ikuslego mota: Helduak

Iraupena: 75 min

Hizkuntza: Euskara

Beharrak:*Eremu minimoa: 3 x 2 metro*Teknikoki: bi mikro eta musika ekipoa*Aldagela.

Montaketa denbora: 30 min **Jasoketa:** 30 min

ION MARTINEZ ESNAOLA (Donostia, Gipuzkoa)

2002. Urtetik umorezko bakarrizketak eta antzerki munduan sartuta dabil. Urte guzti hauetan emanaldi ugari eginez, euskal herriko hainbat eta hainbat txokoetan, bereziki, gaztetxe, taberna eta herri antzokietan egon da euskarazko bakarrizketak eginez.

2010. urtetik aurrera ordea ALDATZEN LAGUNTZEN Antzerki Taldearen sortzailea eta gaur arte hiru antzezlan sortu eta 100 emanalditik gora egin dituzte hiru antzezlanekin euskal herrian zehar.

Antzezlanak: OTEITZA=/= GIZARTEA, ISPILUA, AMETS ZIRKOA SALGAI! direlarik. Azken honekin, Victoria Eugenia antzokian egon direlarik 6 gau jarraian.



JOSE CRUZ GURRUTXAGA (Azkoitia, Gipuzkoa).



Interpretazio munduan denbora luze daraman antzezlea da. Antzerkian, Euskal herriko konpainia garrantzitsuenekin egin du lan; Tanttaka, Vaiven, Txalo, Tardean o Gorakada... azken honekin "La vuelta al Mundo" ikuskizunean egindako paperagatik saria lortu zuen.

Telebistan Etb-ko programa ugarietan ikusi ahal izan dugu; Martín, Mi querido Klikowsky, Belbemendi, Jaun ta jabe, Goenkale, A ze para!... Baita estatuko telesaioetan ere: Hospital Central, Policías, El comisario... Irratian ere egin du lan, baita bikoizketa lanetan eta gala aurkezle ere.

Bakarrizketaren munduan sartuko da, umorezko bakarrizketaren mundua arakatuko du, helduei "stand up" comedy-a euskaraz zuzentzeko asmoz.

Baietz negarrez lehertu!

Irri Par Txu

JOSE CRUZ
GURRUTXAGA



ION MARTINEZ
"TXIKI"



TTipía



ttipia@ttipia-kultura.com 945-243828

gipuzkoa@ttipia-kultura.com 622-667926